

DIRU-SARRERAK

Gure enpresan hainbat diru sarrera ditugu.

Hasteko, gure zapakoiek 150-200€ inguru balio dute eta bezeroek prezio hori ordainduko dute. Eskaintza bereziak ateratzen ditugunean merkatuan eskaerak igoko dira. Gure eskaintzak %20-30eko tartean egongo dira. Horrela zapakoi gehiago salduko ditugu eta diru sarrera kopuru handiak atera ditzakegu. Neguan gure zapakoien eskaintza %30ekoa izango da gabonetarako eta udaren hasieran, %20koa izango da eskaintza berezia.

Gaur egun bezero gehienek kreditu-txartelarekin edota mugikorrarekin ordaintzen dute. Horrela ordaintzea aukeratzen dute aukerarik erosoena baita. Hala ere, badaude bezero gutxi batzuk eskuz ordaintzea nahiago dutenak. Honetaz gain, kontu korrontera transferentzia bat egiteko aukera ematen zaie batzuetan bezeroei, diru kopuru altuak direnean. Hortaz, gure bezeroei aukera guzti hauek emango dizkiegu, bakoitzak norbere erosotasunaren arabera aukera dezan.

Gure diru-sarrera iturri nagusia zapakoien salmentan lortzen dugun dirua izango da. Era berean, gure webgunean daukagun publizitatetik eta kolaborazioetatik etekinak lortuko ditugu besteak beste.

Gure produktuaren prezioa finkatzeko orduan aplikatu ditugun ezinbesteko irizpideak hurrengoak izan dira:

- Jasangarritasuna zapakoiaren prezioaren giltza izan da, hain zuzen. Kalitatezko materiala erabiltzeaz ziurtatu egin garenez eta gure produktuaren ekoizpena Euskal Herrian izatea erabaki dugunez, zapakoiaren prezioa 150-200€-koa izango da, gure enpresaren jasangarritasuna bermatzeko.
- Berritasuna beste garrantzizko irizpidea izan da. Zapakoa produktu berritzailea izateak horren prezioa igotzea eragin du. Azken finean, gure produktua asmakizun berri bat da, merkatuan ez dagoena eta horrek produktu eksklusiboa bihurtzen du.

